

Urre miatzearen aurkako eskaera (Kanboko baimena)

1) Sudmine elkarteak, urre miatzerako eta honekin loturiko beste substantzien bilaketa burutzeko baimena eskatu du (PER-M Kanbo).

° Ustiaketa mota honek hainbat eragin kaltegarri ditu, hauen artean, ustiaketa burutu ahal izateko erabili ohi den ur kantitate kontsumo altua. Jakinik lurralde horretan urak zer nolako garrantzia duen, bai nekazarien aktibitateari begira, baita alde turistikoari begira ere (ur termalak,...), ezinbestekoa da arazo honetaz jardutea. PER baimenaren eskaerarekin batera, Sudmine elkarteak, bere aktibitateak ur baliabideetan eragin ditzazken ondorioen inguruko ikerketa aurkeztu beharko luke, baina ez da kasua. Beraz, ustiaketa ez dator bat lurraldean egiten diren aktibitateekin.

2) PER- aren eragina, kalitatezko nekazaritza produktuak garatzen diren lurraldeari dagokio, nekazaritza mota honek luzarorako aktibitate eta garapen iraunkor bat ahalbidetzen du zonaldean.

° Minen ustiaketak aldiz, epe motzerako ustiaketak dira, ustiutzen diren baliabideak berriztatu ezin direnean eta nekazarien laneko prozesuak arriskuan jartzen dituztenean.

3) Bestalde, mina hauen esplorazio eta ustiaketak zaindu beharreko ondasun arkeologikoaren suntsipena dakar.

4) Horrez gain, Sudmine elkarteak urre ustiaketarako beharrezkoa duen baimenaren berritzea eskatzen du lehen mailako urrea aurkitzeko helburuarekin (hau da, jatorrizko urre hutsaren hariak aurkitzeko). Ustiaketa mota honek hainbat baliabide martxan jartzea eskatzen du, hauek ingurumenean izango duten eragina aldeztu aurretik aztertu behar da, baina Sudmine elkarteak bere txostenean ez du inolako aipamenik egiten horren inguruan.

° Ondorioz, urrearen esplorazio eta ustiaketaren inguruko eraginak aldeztu aurretik aurreikusi, aztertu eta balioztatu behar dira, baina aipatu bezala, Sudmine elkartearen txostenean ez da kontutan hartzen.

5) GéoPlusEnvironnement elkarteak izan da gai honen inguruan arduratu dena, izan ere, ustiaketak ingurumenean sor dezakeen inpaktuaz informatu nahi du.

Aldi berean GéoPlusEnvironnement, Sudmine elkartearen asoziatu bat da, eta azken honen txostenak dionaren arabera, GéoPlusEnvironnement-ek ere, maila berdineko ardura duela ustiaketa eta esplorazio prozesuan eta beraz, ingurumenarekiko eragin kaltegarriak zeintzuk diren aurreikustea eta aztertzea partekatu beharreko betebeharra dela.

° Egoera honetan, elkarteek hartzen duten posizio kontrajarriek arazo etiko baten azalratzea agertzen dute.

6) Kontseilu municipalen ordezkariak gai honen inguruan galdezkatuak izan dira, haien iritzia ezagutzeko asmoz, baina prefeturak egindako txostena publikoari irekia ez denez, biztanleak ez daude guztiz informatuak arazoaz jabetzeko.

° Ekiteko modu honek, demokrazia errepresentatiboaren eta parte hartzailearen funtzionamenduaren arazoak azalarazten ditu gaiari irtenbide zuzena emateko traba izanki.

Arrazoi guzti hauengatik, Sudmine elkarteak burutu nahi dituen esplorazio zein ustiaketak aurrera eramateko desadostasuna azaltzen dut.